

LAN DEIALDIA

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak Euskaraldia kudeatzeko bi pertsona kontratatzeko lan deialdia ireki du. Lanpostu hauek Euskaraldiaren koordinazio eta antolaketa lanak burutzeko izango dira Aiaraldeko eskualdean.

Lanpostuaren Ezaugarriak:

- Kopurua: 2 pertsona.
- Lanaldi mota: %100eko lanaldia.
- Iraupena: 3 hilabete (2025eko martxoak 3-ekainak 3). Otsailaren 28an lanaren zehaztasun bilera egingo dugu.
- Helburua: Euskaraldiaren ekimenak koordinatu eta garatzea Aiaraldeko eskualdean.

Lanaren Deskribapena:

- Euskaraldiaren dinamizazioa eta antolaketa.
- Eragile ezberdinekin harremanak eta koordinazioa.
- Komunikazio-kanpainen kudeaketa eta zabalkundea.
- Jardueren antolaketa eta jarraipena.
- Partaidetza sustatzeko ekintzak diseinatu eta gauzatzea.

Eskatzen den Profila:

- Euskara ahozko eta idatzizko maila egokia
- Euskararen sustapenean edo antzeko ekimenetan esperientzia izatea.
- Koordinazio eta komunikazio gaitasunak.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Aiaraldeko eskualdearen ezagutza baloratuko da.

Interesdunek hautagaitza bidali beharko dute zehaztutako epean, lanpostu hauetako bat betetzeko aukera izan dezaten.

Deialdi hau Euskaraldia arrakastaz kudeatu eta eskualdean euskararen erabilera areagotzeko ekimenak sustatzeko helburuarekin egiten da.